

## Euskal Autonomia Erkidegoko aldi baterako ehizako lizentzia lortzeko eskaera

### Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Salbuespen gisa, aldi baterako ehizako lizentziak ematea beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian bizi direnei, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizako lizentzia ez badute.

#### Nork tramitatzen du

- LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA
- Mendietako eta Natura Ondareko Zuzendaritza Nagusia
- Basa Animalien eta Landareen Zerbitzua

#### Nori zuzenduta

14 urtetik gorako pertsonak.

#### Baldintzak

1- Kasu hauetakoren batean egotea:

- a) Ehiza-lehiaketa ofizialetan parte hartu behar dutenak.
- b) Hil gabeko ehiza-ibilbideetan, hegazti harrapari bidezko ehiza-erakustaldietan edo ehiza-jarduerak egiteko eremuetan egiten diren antzeko jardueretan parte hartu nahi dutenak.
- c) Behar bezala baimendutako ehizaldietan puntualki parte hartuko dutenak.

2.- Aldi baterako ehiza-baimena eskuratu nahi dutenek honako hauek bete beharko dituzte:

- a) Beren nortasuna egiaztatu.
- b) Bizi diren tokian emandako ehiza-baimena eduki, egin nahi duten ehiza-jarduerarako gaitzen dituen.
- c) Adierazpen bat sinatu, ehizatze gaitasunik gabe utzita ez daudela eta ehizaren arloko ordaindu gabeko zehapen irmorik ez dutela dioena.

### HASIERA ETA ESKAERA

#### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Eskaera orria](#)

#### Aurkeztu beharreko agiriak

1. NA, pasaporte edo gida baimena

- Europako Batasuneko estatu kideetako herritarrak: pasaporte edo beren jatorrizko estatuan onartuta dagoen identifikazio agiria.
- Europako Batasunaz kanpoko herritarrak: pasaporte.

2- Bizi diren tokian emandako ehiza-baimena eduki, egin nahi duten ehiza-jarduerarako gaitzen dituen.

3- Adierazpen bat sinatuta, ehizatze gaitasunik gabe utzita ez daudela eta ehizaren arloko ordaindu gabeko zehapen irmorik ez dutela dioena.

4- Ehiztaria 160/2014 Dekretuaren 8.1) artikuluan jasotako kasuren batean dagoela egiaztatzen duen agiria.

Agiri guztiek **jatorrizkoak** edo **kopia konpultsatuak** izan behar dute.

Sinadura elektronikoa aurreratuekin bidalitako dokumentuen kopia digitalak originalaren hitzez hitzeko kopiatzak hartuko dira.

#### Eskaera moduak

» Presentziala

#### Zuzeneko arretarako bulegoak

- Gipuzkoako Ehiza Federazioa
- [Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak \(ENB\)](#)
- Basa Animalien eta Landareen Zerbitzua

## ARAUDIA

---

- [160/2014 DEKRETUA, uztailaren 29koa, ehiza-baimena eta ehizatzeko gaitasunaren azterketa arautzen dituen](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Informazio gehigarria

- Aldi baterako baimenaren balioa, gehienez ere, ondoz ondoko hamabost egun naturalekoa izango da.
- Pertsona bakoitzak, gehienez ere, aldi baterako bi baimen eskuratu ahal izango ditu ehiza-denboraldi bakoitzean.
- Aldi baterako ehiza-baimenak ez du ematen Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-baimena eskuratzeko eskubiderik.